



Santio zaindariaren eguna behar bezala ospatu dute Villabonan

JAIAK ▶ Musika, dantza, kirola eta jolasa izan zen atzo; gaur, Santa Ana eguneko ekitaldiak ▶ 4-5



Udal korporazioa txistulari eta dantzariekin meza nagusia bukatuta Santio Egoitzara joaten. NOELIA LATABURU



JAIONE ASTIBIA

Kanflankak ez zuen lortu Nafarroako sega txapela

LEITZA ▶ Mariñelarenak irabazi dio 75 kiloko aldea ateraz; 500 ikusle bildu ziren atzo Garagartzako belartsoran ▶ 7

JOKIN ARANALDE ▶ EUSKAL IHESLARIA

«Gatazka politikoa
dagoen bitartean,
iheslarikak izanen dira»

Euskal Herrian bizitzeko hautua
eta EHNA erabiltzera deia egin du ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Erasun,
Gipuzkoako
segalari
txapelduna

Aranalde 3. izan da
eta Goikoetxea 4. ▶ 7

HERNIALDE ▶

Pepi Arrutiren paisaien
arte Herriko Ostatuko
paretetan zintzilik

Koadro inpresionistak, figuratiboak
eta bestelakoak ditu donostiarrak ▶ 3

Festa zorionsuak opa dizkizuegu!

Amane

Ernioeba, 5 • BILLABONA • Tel.: 943 69 68 11

MIKEL ARRUABARRENA ▶ FUTBOLARIA

«Osasunak ni fitxatzeko interes handia erakutsi du»

Osasunaren bigarren taldearekin lanean aritzeko prest eta lehen taldetik aukera noiz luzatuko dioten zain dago futbolari tolosarra

OIHANA LETE

Mikel Arruabarrena tolosarra 9 urte zituenetik hasi zen futboleko jokatzeko. 16 urte zituenetik Athletic B-n jokatzeko proposamena onartu zuen han izan da azken urte hauetan. Datorren denboraldia Osasunarekin egiteko gogotsu aurkitu du.

Athletic B taldetik Osasunarako bidea egin duzu, zer dela eta aldaketa hori?

Osasunak ni fitxatzeko interes handiagoa erakutsi du nire ustetan, apostu handiagoa egin dute nire alde. Bestalde, Athletic-en 6 urte daramatzat eta aldatzeko garaia dela iruditzen zait.

Betidanik izan al duzu futbolari izateko grina? Edota beste bide bati ekin zenion lehen-dabizi?

Txiki-txikitatik futbola gustatu izan zait, betidanik izan dut futbolari izatea amestzat eta une honetan amets hori aurrera eramaten dihardut. Futboleko pentsatzen igarotzen nituen orduak.

Oso gazetarik sartu zara kirol munduan; familiak bidea erraztu al dizu?

Bai, familiak nik txiki-txikitatik futboleko jokatzeko nahi zuen. Hasieran hobby bezala hartzen nuen, baina 15-16 urterekin lehen aldiz kanpora joateko aukera izan nuen eta anaiek eta gurasoek babesa eman zidaten lehen unetik. Nire lehen jarraitzaileak familiakoak direla esan daiteke.

Ikasketak eta futbola; bata bestearekin bateragarriak al dira? Zer ari zara ikasten eta



IMANOL GARCIA

zer moduz daramatzazu orain arte?

Enpresa Zientziak ari naiz ikasten. Biak eramaterik badago, baina ez da lan erraza. Lehenengo urtean ikasketak bazterrean utzi nituen pixka bat eta aurretik gehiago saiatu beharko dut. Ikasketak xuabe-xuabe hartu ditut, ikasgaika gaindituaz joateko erabakia hartu dut. Oraingoz futbolari ematen diot lehentasuna.

Athletic B, Osasuna... Talde garrantzitsuetan jokatzeko

aukerak izaten ari zara, baina ba al dago noizbait jokatzeko gustatuko litzaizukeen talderik?

Nire helburua lehenengo mailan jokatzeko da. Txikia nintzenean Realeko zaletua sentitzen nintzen, baina azken urte hauetan Athletic-en jokatzeko aritu naizenez oso gustura sentitu naiz eta bertan jokatzeko jarraitu nahi nuen. Maila profesionalera futboleko jokatu nahi dut eta kirol honetaz bizi, baina ez dut talde berezirik buruan.

Gipuzkoarra izanik denok galdera bera darabilkizue buruan: noizbait Realean jokatzeko al da zure ametsetariko bat?

Ez dut bertan jokatzeko grina berezirik, jokatu behar badut jokatu dut, baina besterik gabe. Hala eta guztiz ere ez dizkiot ateak inori isten. Athletic-en nengoenean bertan jarraitzea zen nire ametsa eta Osasunaren egotean taldearekin lehenengo mailan jokatzeko dut helburutzat.

DI-DA BATEAN ▶

Amets bat. Lehenengo mailan jokatzeko.

Idolo bat. Zidane.

Futbol talde bat. Euskal talde guztiak.

Beste kirol bat. Frontonisa eta pala.

Mendia ala hondartza. Mendia.

Negua ala uda. Uda nahia-go dut.

Liburu bat. *Codigo da Vinci*.

Film bat. Ez daukat bat bereziki gogoan, baina *El patriota* bezalakoak ditut gogoko. Azkenik ikusi nuen filma *La guerra de las galaxias III* izan zen eta ez zitzaidan gustatu.

Zer azpimarratuko zenuke Athletic taldetik?

Hasiera-hasieratik ondo hartu naute taldean, ekipamendua eta entrenatzeko tokia egokiak izan dira beti. Hasieran erresidentzia batean egon nintzen eta ondoren etxe batera pasatu nintzen, eta toki guztiaren aurkitu dut laguntzeko prest zegoen jendea.

Athletic B-ko 'pitzitxia' izan zara. Osasunaren zein postutan jokatu behar duzu?

Nik uste dut aurrelari edo erdi-punta moduan jokatu dudala; postu hauek ditut gustuko eta ondoen hauetan moldatzen naizela esango nuke.

Denbora asko igarotzen duzu etxetik kanpo. Zer da zure herririk faltan gehien botatzen duzuna?

Neska, ditudan lagunak eta familia.

Eta kanpoan Tolosan aurkitu ezinezko zerbaitekin izan al duzu?

Lagun berri asko egin ditut. Nirekin jokatzeko zuten taldekideak eta bertako ikastolan ikasi nuenean ezagututako jendeak laguntza handia eman didate.

Bide guztiak dituzte euren zailtasunak. Zuk, horietatik batzuk biziak izanik, zer gomendatuko zenioke zeure bidari ekin nahi dion 15 urteko gazte bati?

Aukera baldin badu aprobetxatzea. Hasierako beldurrak albo batera utzi behar dira, kanpoan ere laguntzeko prest dagoen jendearekin egin ohi da topo. Agian horrelako aukera bizitzan behin bakarrik emango diote eta aprobetxatzea komeni da.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Asteasu. Aukera ezin hobea. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Sartzeko moduan. 11 m²-ko trasteleku. 30.000.000 pta. Etxesagasti 943 69 68 56.

Lizartza. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bi bainugela dituen etxebizitza. Berritua. Kanpoaldera. 34m²ko garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdialdean. Bi logela eta trasteleku dituen etxebizitza.

Berrituko. Trasteleku. 32.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Taberna salgai. Informa zaituzte. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Hiru logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Igoailua eta trasteleku. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, txaletak, baserriak behar dira, alokairuan edo salmantan. Itxaron zerranda dugu.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Abuztuko agurrak. Urtero bezala, HITZAK oporrak hartuko ditu abuztuan. Urtebetetze, eztei edo bestelako ospakizun bat hilabete horretan baduzue, aurreratu eta orain atera dezakezue, abuztuan ez bada aukerarik izango. Mugari zaitzete eta argazkia ekarri lehenbailehen HITZAREN egoitzara.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

HERNIALDE ▶ ERAKUSKETA

Paisaien artea Ostatuan

Pepi Arruti donostiarraren koadroak daude ikusgai Herriko Ostatuan

I.GARCIA/J.SAIZAR

Olio-pinturaren teknika erabiliz eta, batez ere, paisaiak gaitzat hartuz, 16 koadroko erakusketa bikaina paratu du Pepi Arruti margolari donostiarrak Hernialdeko Herriko Ostatuan ikusle guztien gozagarri.

Koadro inpresionistak, figuratiboak eta bestelakoak daude jarrita ostatuko paretetan. Paisaien artean mendia eta itsasoa, dira nagusi. Herri txiki batzuk ere badira. Abstraktoa ere erabiltzen du behin baino gehiagotan margolari donostiarrak.

Bere kasa ikasi du, txikitandik hasi zen margotzen Arruti eta inoiz ez du albo batera utzi zaletasun hori. Erizain gisa lanean ari zela, denbora libreetan, Gipuzkoako Ospitaleko kristaletan marrazkiak egiten zituen «gaixoen egonaldia alaitzeko».

Donostian bizi zen Victoria Montolivo irakasle argentinararekin eta Michael Ramon maisuarekin bere ikasketak

sakondu ditu. Honek bere koadroei argia ematen erakutsi zion.

Donostiako San Telmo museoan erakutsi izan ditu bere koadroak Gipuzkoako margolarien erakusketa kolektibo batean. Han zintzilikatutako koadro bat Kutxako ordezkariak erosi zioten.

Irailean, beste bat

Duela urte batzuk hasitako ekimenarekin jarraituz, irailetik aurrera beste erakusketa interresgarri bat izango da Hernialdeko Ostatuan. Irene Laffite eta Fray Alvarez de Eulate pintore ezagunen lanak egongo dira paretetan eskegita. Bakoitzaren hiruna obra egongo dira ikusgai, eta erakusketa osatzeko Luis Laskorain bergararren eta Maider Urretabizkaia lazkaotarraren koadro batzuk ere izango dira bertan.

Txalotzekoa benetan, ostatu honek kulturaren alde egiten duen lana, artista afizionatuei bere lanak erakusteko aukera emanez.



Erretratoak. Pertsonaiak erretratatzea gustuko du Pepi Arruti margolari donostiarrak. I.GARCIA




Donostia. Haizeen orrazia eskultura. I.GARCIA



Herriak. Margo askotan ageri dira. I.GARCIA



Zezenak. Erakusketa honetan zezen gaia ere agertzen da. I.GARCIA



Abstraktoa. Koadro guztiak ez dira figuratiboak. I.GARCIA

VILLABONA ▶ SANTIOAK

Zaindariaren omenez ginikoak

Atzo Santio Eguna izan zen musikarako, kirolerako eta jolaserako tartea izan zelarik; gaur, berriz, Santa Ana Eguneko ospakizunak egingo dituzte egun guztian zehar



Udal korporazioak Santiago egotzara bisita egin zuen meza nagusiaren ostean, herriko dantzari eta txistulariek babestuta. M. LATAUBA

NEGLIA LATABURU

Atzoko jai egunari probetxu ederra ateratzen jakin izan zuten atzo Villabonan, gusean goiz hasi eta guseko ordu txikietara bitarte Santio Eguna nahiko adina aukera eskaini zituen, gutxienez gusean bertan, eta usadioek eta herrikuntzek bait egin zuten egun luze honean. Goizero legez, Toloasako dul-

larieneroek iratzarri zituzten bi-labonatarak oraingoan sokamuturra alaituz plazan. Ondoren, Zumbeltz elkarrekin antolatutako ohiko herri krosa korritu zen herriko kaleetan barrena. Malla desberdinetako korrikalari ugari hartu zuten parte bertan. Meza nagusiaren ostean, udal korporazioak bisita egin zuen Santiago egotzara, herriko alkate Bakartxo Tejeria

buru zelarik. Txistulariek eta dantzari gasteek ibilbidea arindu zuten. Bien bitartean, Berdura plazan, Valtierako musika bandak kontzertu arrakastatsua eskaini zuen. Arratsaldean, erraldoi eta buruhandien txanda izan zen; hauek ostean Oinikari dantza taldeak soka dantza eskaini zuelarik, herriko plazan. Musika ez zuen etenik izan eta ihurtze aldera, Irailerako 6 tal-

deak plaza alaitu zuen dantzaldia eskainiz. 'Oruituz', estreinakoz Soka dantza ez zen, ordea, Oinikari dantza taldearen emanaldi bakarra izan, izan ere, Oinikari dantza taldearen estreinaldia egin zuen gusean, bidean, musika eta dantza uztartu zituen emanaldia, hain zuzen ere Oinikari kiroldegian izan zen. Gaur, berriz, Santa Ana Eguna izango da eta festak ez du etenik izango. Goizeko diastan ostean, haurrek izango dute zer gozatu txistularien plazan antolatuko duten haur parke handian. Arratsaldean ere bertara jolaserako josteko aukera izango dutelarik. Halaber, musika bandak jokatuko dute herriaren artean. Berdura plazan, kirolak ere presentatza izango du gaurkoan, plaza-ko pilotalekuan jokatu diren joko garbi pilota partidekin. Ondoren, sabelak ondo bete

EGITARAUA ▶

Gaur ekitaldiak betelarik Santa Ana Eguna izango dute Villabonan.

- GAUR**
- Santa Ana Eguna.**
- 09:00.** Dama-kaleja Toloasako dultzaineroekin.
- 10:30.** Haur parke handia Txistularien plazan.
- 16:00.** Mus kapelleta herrikoia Berdura plazan.
- 17:00.** Haur parke handia Txistularien plazan.
- 18:00.** Joko garbi pilota parkean.
- 19:00.** Sagardo eta bekor dastaleta Txerminen.
- 20:30.** Dantzaldia plazan Escala orkestrarekin.
- 22:30.** Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia Gurea aretoan.
- 23:30.** Dantzaldia plazan Escala orkestrarekin.

tordua eta jende andana bildu zen bertan. Gaudeluz Irailerako 6 taldeak bigarren aldiz jotzekoan zen jai giro bikaina sortzeko asmatan.

Villabonako Amnistiarren Aldeko Mugimendua euskal preso eta errefuziatuak gogoran izan zituen atzokoan ere Santio jaietan, euskal presoak *Euskal Herria* lelopean antolatutako egitarauaren barnean, enikarietara isila egin zuten Gurea aretoan, 19:30etik aurrera. Etxerat elkarrekin detutu, *Euskal presoak Euskal Herria* orain jolasekin.

Gaur, berriz, Santa Ana Eguna izango da eta festak ez du etenik izango. Goizeko diastan ostean, haurrek izango dute zer gozatu txistularien plazan antolatuko duten haur parke handian. Arratsaldean ere bertara jolaserako josteko aukera izango dutelarik. Halaber, musika bandak jokatuko dute herriaren artean. Berdura plazan, kirolak ere presentatza izango du gaurkoan, plaza-ko pilotalekuan jokatu diren joko garbi pilota partidekin. Ondoren, sabelak ondo bete



Herri krosa. Urtero bezala, Zumbeltz elkarrekin herri krosa antolatuta zuen herriko kaleetan barrena. Adin guztietako jendeak hartu zuen parte bertan, gizezko zain emakumezko. Atererak ere kaleetara irten ziren korrikalariari animas emateko, giroa ere berotu zutelarik. NEGLIA LATABURU



Kontzertua. Berdura plazan, Valtierako musika bandak eskaini zuen; jende ugari bildu zen bertan bandaren dionukei guzateko, bakalazurreko aperitibo ezin hobea. NEGLIA LATABURU

ahalko dituzte Txerminen biltzen direnek, sagardo eta txer kor dastaleta egingo baitute bertan. Egunari amaierra emateko musikak hartuko du protagonismoa. Bada, 20:30ean Escala orkestraren dantzaldia izango da. 22:30ean, berriz, Villabonako Eresargi abesbatzak urtero eskaintzen duen emanaldia izango da Gurea aretoan Gaurkoan, aldiz, musika eta poesia nahastu nahi izan du Juan Cruz Iperabide idazle adunarraren laguntzarekin. Emanaldian Oihane Iperabide harpa jotzailea, Ana Iperabide pianoan, Arantza Mujika laboia eta Marijane Arratibel txur-larekin arituko dira. Hau guztia Juan Mari Iperabide zuzendatzen du.

ZUZENKETA ▶

Atzoko HITzen, Oinikari dantza taldeari buruzko erreportaiko argazkiak ez ziren talde herrikoak, Udaberri eta Alur dantza taldeetarako baizik.

AUIURI ▶



Aldizkaria. Auri. **Zenbakia.** 239.a. **Orrialdeak.** 28. **Tirada.** 2.500 ale. **Gai nagusia.** Santio jaiak. **Beste gaiak.** Altor Mendiluze, Amasako segalarak; Adunako dantza soka eta jaiak; Larraigo eta Aletasuko jaiak... **Argitaratzailea.** Manuel Larremendi kultur bazkuna. **Kale Berria** 47, 3. eskuin (Villabona) **943 69 64 50** **aluri@topagunea.com** **www.auiuri.com**

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi. **Zenbakia.** 218.a. **Orrialdeak.** 28. **Tirada.** 5.000 ale. **Gai nagusia.** Oinikari. **Beste gaiak.** Maputheen egur lehortegia; Nerea Otaegi; Saharako heurak; Txirurdika; Anoetako jaiak... **Argitaratzailea.** Galtzaundi ezuskarri taldea. **Nafarroa etorb.** 5 (Tolosa) **943 6 50 04** **eredakzoa@galtzaundi.com** **www.galtzaundi.com**

Irukide Inmobiliaria
Ondo pasa Jaetan!
Etxe-besa kalera, 2
20150 Villabona
Tel. 943 69 36 82
Fax: 943 69 36 82
Email: irukide@irukide.com
www.irukide.com

BRONTXILLO
Herategia
Arrodungia
Tel.: 943696823
Santio, 4
Villabona
Gora Santio Jaiek!

N. Irukide
Gora Santioak!
Tel.: 943 69 64 98
Fax: 943 69 23 99
Larra auzoa, 8
20150 BILLABONA

JANARIDENDA PILAR
Larra, 9 • Villabona
Tel.: 675 713637

MIGUEL-MARU
Ondo pasa jaiak!
Kale Berria, 13 • BILLABONA
943 69 21 50
FRUTATEGIA

NATURHOUSE
Dietetika eta nutrizioa
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Nagusia, 43 • Billabona • Tel.: 943 69 43 31

LARREREA
Herategia
Arrodungia
Tel.: 943 69 68 23
Santio, 4
Villabona
Gora Santio Jaiek!

OKINDEGIA
Kixubi
Gozotegia eta katelegia
Etxeak, 1 • 20150 BILLABONA • 943 69 31 22

Janari Denda
Pepe
Ondo pasa Santioak!
Berrak, 2 • 20150 BILLABONA
Tel. 943 69 18 58

AINHOT
ILEAPAINDEGIA
ZURE ILEAPAINDEGIA
festa zoriontsuak pasa!
Tel.: 943 69 34 21 • MAI.: 129 248 624
Etxe-ondo auzoa 7 • BILLABONA

GOIATZ MARGOAK OROKORREAN
INDUSTRIALA • NATZAK • HARRIA GORRITZAKO...
Etxeak kalera, 6 • 2. esk. • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01 • Fax: 943 69 31 01 • mug.: 609 14 37 13

"DOPORRETARA NOA EROSKI BIDAIAK-ERIKI"
Salou 375
Benidorm 375
Andalucia 435
Lanzarote 360
Tenerife 389
Paris 299
EROSKI bidaiak

ALOÑA HUERTA ETA JOKIN ARANALDE ▶ EUSKAL IHESLARIAK

«Gatazka politikoa dagoen bitartean, iheslariak izanen dira»

«Jazarpena belaunaldiz belaunaldi jasaten dutelako lekuko» dira bi iheslariak; Euskal Herrian bizitzeko hautua berretsi dute eta EHNA erabiltzeko deia egin

ENEKO BIDEGAIN (Berria)

Batak 25 urte ditu. Besteak 59. Biek duela bi urte eta erdi ihes egin zuten beren etxeetatik. Geroztik Ipar Euskal Herrian bizi dira. «Gu bien artean kasik berrogei urteko diferentzia dago», dio Jokin Aranaldek (Gaztelu, 1946). «Iheslariaren historia luzea eta zabala da, ez zen gurekin hasi eta ez da gurekin bukatuko». Aloña Huerta (Iruñea, 1980) ados dago. «Gatazka politikoa dagoen bitartean, iheslariak segituko dute». Jokin Aranalde duela hiru urte atxilotu zuten, Bata-sunaren kontrako operazio batean. «Torturatu ninduten, eta gero aske utzi, 10.000 euroko bermea ordaindurik». Geroago semea atxilotu zuten, gaur egun aske baldin badago ere. Alaba Fresnesko espetxean dago. Etxea utzi behar izan zuten. Emaztea amaren etxean bizi da orain. Jokin Aranalde Donazaharren (Baxenabarre) bizi da. Francoren garaian ere atxilotu zuten, bi aldiz. Bi aldiz torturatu zuten, eta bi aldiz espeteratu zuten. Aloña Huerta gazteen kontrako jazarpena ikusirik joan zen etxetik. Donostian bizi zen. Bere lagun taldeko anitz atxilotuak eta torturatuak izan zirela ikusirik, sarekada haiei ihes egiteko, Ipar Euskal Herrira etorri zen bizitzera. Gaur egun Hendaian bizi da. «Oraindik tortura eta jazarpena jasaten dugulako lekukoak gara», dio Huertak.

Iheslariak

«Herri honetan belaunaldi guztiak jarraitzen dute borrokan», Aranalderen ustez. Gaur



Aloña Huerta eta Jokin Aranalde errefuxiatuak Baionan. BERRIA

egun 2.000 iheslari baino gehiago daude munduan, euskal gatazkarengatik. 3.000 lagunek ezagutu dute kartzela, Franco hil denetik hona. 20.000 lagun atxilotu dituzte, eta 5.000 torturatu. Zenbaki horiek gogora ekarri ditu Aranaldek. «Sekula baino belau-

naldi gehiagok jasaten dituzte atxilotetak». Aldi berean, duela berrogei urte baino «atxikimendu gehiago» dago belau-naldien artean. Presondegitan 20 urtetik 60 urte arteko militanteak daudela azpimarratu du. Adin tarte bera da iheslariaren artean ere. Bizitzeko

zailtasunen gainetik, egoerari buru egiten ahalegintzen dira. Aranaldek barazteetan lan egiten du Heletan. Huertak AEKn, ikastolan eta Uda Lekun lan egiten du. Aranaldek garrantzi handia ematen dio «Euskal Herrian libre bizitzeko eskubideari». Hori egunero obratzen ari direla dio, bereziki EHNAren bidez. Munduan zehar sakabatuak diren iheslariak duela hamar urte hasi ziren Euskal Herrira itzultzen. Deportatuak ziren franko Ipar Euskal Herrira itzuli ziren, eta Frantziara konfinatuak zirenak ere bai. «Bide berri bat eraikitzea erabaki zen», azaldu du Jokin Aranaldek. «Euskal Herrira itzultzeko erabakia hartzen denean, jarrera intsumitu bat hartzen da», gehitu du Aloña Huerta gazteak. EHNA erabiltzeko deia egin du Jokin Aranaldek. «Euskaldun gisa, EHNA erabili behar dugu». Orain arte 50.000 EHNA eginak izan direla eta «bide horrek etorkizun zabala» duela uste du. Oraindik ez dela gehiegi ezagutua uste badu ere, etorkizunean jende gehiagok egingen duela uste du.

Poliziari EHNA erakutsiz

EHNA erabiltzea ekintza baikor gisa ikusten du. «Borroka hori ez doa inoren aurka. Pentsakera guztiak onartzen ditu». EHNA sortu izana «erabaki ausarta» zela dio. «Arrisku guztiak, jendea horri atxikitzen ari zaio. Gure apustua EHNA sistematikoki erabiltzea da». Aloña Huertak «arazorik gabe» erabiltzen du EHNA supermerkatuan, bankuan eta abar. Bitxiagorik ere gertatu

ITZULERA

«Euskal Herrira itzultzeko erabakia hartzen denean jarrera intsumitu bat hartzen da»

EHNA

«EHNA erabiltzearen borroka ez doa inoren aurka; pentsaera guztiak onartzen ditu»

INPLIKAZIOA

«EHNA dugun guztiok eguneroko bizitzan erabiliko bagenu, gehiago ikusiko litzateke»

izan zaio. «Behin, poliziek gelditu gintuzten. EHNA erakutsi genien. Ez zela baliagarria erantzun ziguten. Guk baietz. Gure izenak konprobatu zituzten, eta agiria arazorik gabe itzuli ziguten». Huertaren ustez dokumentazioari ez zioten kasurik egin. «Datuak nahi zituzten». Jokin Aranalderi ez zaio horrelakorik gertatu. Oraino ez du aukera hori ukan. Baina EHNAren baliagarritasunaz baikor egoteko arrazoi bat gehiago ikusi du anekdota horrekin. «Bide berri guztiak bezala, zailtasunak izan baditu, kezka eta beldurrak sortzen ditu». Baina emeki-emeki gero eta jende gehiago ausartuko dela eta EHNAren bideak aurrera egingen duela ziur dago. Aloña Huerta ere iritzi berekoa da: «EHNA dugun guztiok erabiliko bagenu, gehiago ikusiko litzateke»

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

LEITZA ▶ NAFARROAKO SEGALARI TXAPELKETA

Mariñelarenak irabazi du Nafarroako lehen txapela

Jon Kanflanka, kiloz 75,5 gutxiago ebakita, txapeldunak 1.060, 2. gelditu da



Bi segalariak, aurrekoa Kanflanka, beren laguntzaileekin, eginahaletan buru belarri aritu ziren. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo Leitza jokatu zen Nafarroako Segalari Txapelketa, aurreko aldia egiten zena. Dabid Mariñelarena lantzarrek irabazi zuen, 1.040 kilo belar balioak ebaki ondoren. Jon Kanflanka leitzarra zen beste parte-hartzailea eta azpitxa-

peldun gelditu zen, baliozkoak, 924,5 kilo belar ebakita.

Garagartzako belatsora sartu ziren 500 ikusleren animo-oihuen artean —beste askok «sarrera ordaindu nahi ezik edo», antolakuntzako aitatu zuten, kanpotik jarraitu zuten—, lan ikusgarri polita egin zuten bi segalariak: prestatuta

zituzten seina sailetatik, guztira 1.120 metro karratu zituztenak, bost bukatu eta azkene-koa ebakitzen ari zirela, bukatu zitzaizkien lanerako zituzten 45 minutuak.

Lan saio guztian zehar aurretik joan zen Mariñelarena, ia bi mailetakoa aldea ere lortu zuen lan erditsutan; Kanflan-

SAILKAPENA ▶

NAFARROAKO TXAPELKETA

1. Mariñelarena	1.040 kilo
2. Kanflanka	924,5 kilo

kak alde hori maila eskasera murriztea lortu bazuen ere, denborak agindu zuen, lanak bere horretan geldituz. Ebakitako kiloei erreparatu gero, bi segalarien artean ez zen halako alde nabarmenik izan, 1.060 eta 984,5 kilo. Baliokoetarako, txapeldunak alkateak uzteagatik zigor bat jaso zuen bitartean, Kanflankak, 3; segan eskermentu gehiago ere babaitu lantzarrek.

Pozik zen txapelduna, atzokoan: «Alde batetik, noski, txapela irabazi dudalako, baina are gehiago, orain badelako beste segalari bat gehiago», zioen. Eta Kanflanka ere «oso gustura» azaldu zen egindako lanarekin: «zutik justu-justu, baina oso gustura. Giroa ere bikaina. Lastima, penalizazioena...», aitortu zuen, irrifartsu.

TOLOSALDEA ▶ GIPUZKOAKO SEGALARI TXAPELKETA

Juan Manuel Erasunek lortu du Gipuzkoako Segalari Txapelketa,

Aranalde eta Goikoetxea gazteluarrek, berriz, 3. eta 4. lekuak eskuratu dituzte txapelketan

J. ASTIBIA

Herenegun jokatu zen Urnieitan Gipuzkoako Segalarien Txapelketa eta Juan Manuel Erasun izan zen garaile, bereztzat, gainera, huraxe izan zen lortzen zuen aurreneko Gipuzkoako Txapela ere.

Aurren aurrenetik Erasun bera jarri zen buru, ebakitzekoak zituzten zortzina sailetatik zapi, berak bukatu baitzuten aurreneko, baina azkenean, saio guztian zehar orpoz-orpo jarraitu zion Mitxelena oiartzuarrak aurre hartu zion eta ordu beteko epea bukatu baino lehen, 4 minuturen

faltan zehazki, prestatuta zeuden lanak bukatu egin zituen, ondorioz epaileen erabakiz orduantxe bukatu zelarrik erronka, zeudenak zeuden tokian, bakoitzak egindako lanarekin, ordu beteko epea akitu gabe izanagatik. Horrela pisaketa lanak bukatu arte ez zen irabazlearen izenik argitzerik izan: Mitxelena bukatu egin zituen lanak, gainerakoek ez. Baina pisuek emanen zuten azken hitza. Aitatzekoa da, kasu honean, segalari batek bakarrik ere ez zuela zigorrik jaso epaileengandik belarra gaizki mozteagatik. Oso txukun egin zuten lana guztiek.



Juan Manuel Erasun entrenamendu batean. I.GARCIA

SAILKAPENA ▶

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

1. Erasun	1.863,5 kilo
2. Mitxelena	1.777 kilo
3. Aranalde	1.665,5 kilo
4. Goikoetxea	1.531,5 kilo

Eta hala, 86,5 kiloko aldearengatik, lan bikaina eginez, Erasunek irabazi zuen Gipuz-

koako Segalari Txapelketa, 1.863,5 kilo belar ebaki ondoren; hurrena Mitxelena gelditu zen. «Azkeneko luze egin zait», aitortu zuen ondoren Erasunek, hasieran lortutako abantailari zor irabazi zuela argituz.

Bestalde, hirugarren eta laugarren lekuak lortu zituzten bi gazteluarrek ere ikuskizun polita eskaini zuten, euren arteko lehia eraginez.

IBARRA ▶

Sendi Ekintzako giltza berriak jasotzeko

Bihar eta etzi izango dute aukera oraindik jaso ez dituzten bazkideek

ERREDAKZIOA

Sendi Ekintza elkarteak oraindik sagardotegiko giltzak jaso ez dituztenei jakinarazi nahi die bihar, asteazkena, hilak 27, eta etazi, osteguna, hilak 28, sagardotegian bertan egin dezaketela, 19:00etatik 21:00etara. Giltza berria 15 euro ordaindu beharko da.

Bestalde, hemendik aurrera bazkide berriak egiteko lehendakariarekin jarri beharko dutela harremanetan jarri beharko da, 635 75 70 48 telefono zenbakian, bestela ez dira bazkide berriak onartuko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzo. San Inazio jaietako 29ko zikiro jaterako txartelak salgai daude Arandia jaietxean 18 eurotan
Alegia. AHTren aurkako akanpada Langaurren: 10:00etan *Hombres despistados... liberacion masculina contra el patriarcado tailerra*; 12:00etan Tolosaldeko baserriak filmina emanaldia; 14:00etan bazkaria eta asanblada; 17:00etan hitzaldia *Tentsio altuko lineak, ondorioak eta egitasmoak*; 19:00etan bideo-hitzaldia La punta, Valentziako portuaren zabaltzeaz; 19:30ean hitzaldia AHTz udal aretoan; eta 21:00etan afaria eta olerki saioa.
Anoeta. Euskal Herriko Gay eta Lesbianen elkarteko kideekin hitzaldia Gaztetxean 19:00etan.
Berastegi. Podologoaren bisita eguna larunbata izango da. Ordua hartu behar da Gaztainondon.
Ibarra. Sendi Ekintzako sagardotegiko giltzak bihar eta etzi 19:00etatik 21:00etara har daitezke bertan 15 eurotan. Bestalde, bazkide berriak egiteko lehendakariari deitu behar zaio (635 75 70 48).
Ikaztegieta. Jaietako herri afaria abuztuaren 6an izango da. Izen-ematea Toki alai tabernan 31 arte.
Tolosa. Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia txirrindulaz antolatuta du Esait-ek. Triangulotik abiatuko dira 09:00etan. Bazkarirako izen-ematea, Txiki tabernan, 15 eurotan..
Tolosa. Arantzazura peregrinazioa egingo dute hilaren 31n. Izen-ematea eta bazkarirako txartelak, San Frantzisko elizan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
Leitza. Larraia M.I. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)
11:00-14:00. Errepikapena.
19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Txirrindulariekin errepidean

TOLOSALDEA ▶ Ordizako proba lau aldiz pasatu zen gure eskualdetik eta ikusle ugari bildu zituen; Garcia Quesada izan zen irabazlea eta Del Rio, 9.a



Txirrindulariak Olarraingo akueduktotik pasatzen, Goieritik etorri eta Bidania igotzeko bidean. INIGO ASENSIO

JOXEMI SAIZAR

Tourra bukatu da, baina txirrindularizetasunak bizirik dirau Euskal Herrian eta Tolosaldean. Atzo goizean Ordiziako LXXXII. Txirrindulari Proba ezaguna izan zen eta gure eskualdetik lau aldiz pasatu zen, mendateak igotzeko gainera lau kasuetan. Errepidearen ertzetan jende ugari bildu zen txirrindulari profesionalen lana ikusteko eta txalotzeko.

Guztira hamahiru talde eta

110 txirrindulari izan ziren Ordiziako irteeran, tartean Japoniatik etorritako bat. Txirrindularien artean aurpegi ezagun gutxi, Tourrean aritukoak ez baitziren etorri. Jon del Rio (Andalucia Paul Versan) tolosarra bai, tartean izan zen. Talde bereko Joseba Agirrezabala anoetarra berriz, ez zen irteeran izan, berak espero bezala, igandean HITZAK argitaratutako elkarrizketan azaldu zituen arrazoengatik.

Goieritik etorri eta Alegiatik berrera, Abaltzisketa (350 m)

eta Larraitza igo ziren txirrindulariak hiru aldiz, gero Goierriaren aldirian aurpegi ezagun gutxi, Alegiatik Tolosako Olarrain auzora iritsi eta Bidaniako bidea hartu zuen tropelak. Bidaniako mendatea igotzen (510 m) gerora irabazle izango zen Javier Garcia Quesadak ihes egin zuen, helmugatik 50 kilometrotara.

Handik aurrera Comunidad Valencianako txirrindulari andaluziarrak bakarrik egin zuten ibilbidea erakustaldi handia

eginez eta Ordiziako helmugara halaxe iritsi zen, lehen jarraitzaile taldea —13 lagunekoa— 45 segundotara iritsiz. Esprintean Daniel Morenok (Relax Fuenlabrada) lortu zuen bigarren postua eta Adolfo Garcia Quesada (Comunidad Valenciana) —irabazlearen anaia— hirugarrena. Del Rio bederatzigarren postuan sartu zen helmugan. Mendiko saria irabazlearentzat izan zen eta tarteko helmugena, Carlos Castañorentzat (Andalucia Paul Versan).

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!